


Nafarrokaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1995eko otsailaren 24a / VI. urtea / 167. zenbakia

Musikaren tuneletik ateratzen

Nafarroa rockzalea omen da, berez. Gitarra pare bat, bateria gogorra, baxu ezkutua eta ahots indartsuaren marka ez duenak ez omen du arrakastarik gure artean. Talde gazteek ez dute, baina, topiko hori errespetatzen, ez denek behintzat. Ez behintzat Noise Hole, Jugos lixiviados eta Fools de txirris taldeek. Haiek ingelesa sartzan dute batzuetan, funkya besteetan, rock sinfonikoa hurrengoetan. Datozen urteetan zeresanik eman dezaketenen artean daude, orijinaltasunik ez zaielako falta. Txabiskeen iluntasunetik kontzertu eta grabazioen argitasunera ateratzen ari diren horietakoak dira. Talde berriak, finean.



Noise Hole, Berako talde gaztea.

Jetsemani

Ohitura da euskaldunen artean noizean behinka eta solasari bizitasuna uzketzen hasten zaionean Euskal Herria gaitarako hartzea; halaxe egin du zutabegile honek beste gairik ez zuela topikorik topikoenari jarraituz. Zertan dago Euskal Herriko egoera politikosozialekonomikozonalistakulturalanoragoaznondikgatoz; kasu horietan, topikoari oldartzen gaitzaizkiolarik bekainak belzten zaizkigu eta suakarturik bezala paratzen ditugu aurpegiak sufri-menduz mindutako zimurrez beterik. Gaixotasuna esaten zion joan deneko igandean dinosaurio batek barrenean daramagun har horri; har hori, modernia dixit, kosmopolitismoaren aurkakoa da eta nolabait ere mendebaldeko gizarateak orain artean lortu eskubide eta askatasun eremu guztiak ukatzen omen ditu. Unibertsala kontrolatzen duen poterearen zuriketa usaina hartzen diot nik arrazona-

mentu horri, Juantxo Urdirozek mahainguru batean esandakoaren ildotik hemengo stabilismen unibertsal eta kosmopolita zaleak naburro ardiatiboa gehiago ez duela merezi eta aipa dezagun kasurako Euskal Herria Irratiaren aurkakako epaia.

Beraz gurea, bekaina belzten zaigunona, nazionalismo erkina exkasa eta zirikatzailea baino ez da... guk ezin dugu, sobera era, kosmopolitak izan... hala beharko.

Baina dinosaurio horren erreflexioak bazuen gure zilborrei buruzko beste erreflexio bat: gaixotasuna dugu barnean eta kera-kerakera ibiltzea sekula gaixotasunik izan ez eta bapatekoan hiltzea baino nahiago zuela esaten zuen. Egia da, akaso, baina gure gaixotasun hau, barnean daramagun har hau, nago ez ote den gaixotasun baino gehiago kalbario. Baina betidanik izan ote dugu Euskaldunok? Gure senari itsasia heldu ote da? Eta sufritzeko manera izugarri hau

Etxearen geografia

JUANJO OLASAGARRE



berezkoa dugu? Jetsemani Jetsemani noiz arte?

Gure Euskaldun izatea negarri lotua dago; gure mitologia askotan txantaia emozionalik bortitzena bezala erabiltzen dena, kristautasun masokistenaren irudiz azaltzen zaigu, fede kontutan gabiltza beti, fede kontua dira Euskal Herriari dagozkion lorpen sozial eta nazionalak. Independentzian 'sinisten' duzu edo ez, sozialismoa auskaloko jaingo batek emanen digun paradisua da, baditugu gure santuak, tabernetan aritzen dira hitzetik hortzera eta infernura kondenatu ditugu gure kredo aratz eta garbiak bete ez dituzten guztiak: euskaldun batek potroak izan behar ditu, emakume guztiak zapalduta daude, euskal burgesia Madrilen saldu zen aspaldi. Hemen batzuk egia daukate, beste batzuk, ordea, erabat okertuta dabilta, jende euskaldun askok UPN bozkatzen du engainatuta dagoelako, EA eta PNV

saldurik daude eta abar eta abar.

Fedeaz ez dezake inork far egin infernuratuko ez badute. Eta fedarekin batera araztasuna ere: gure nazionalismoa garbitasunean oinarritu dugu, nekez har dezake bere gisakotarako batzutan bai beste batzutan ez dabilena bere burua aukeratuen artean dakusanak eta halaber, serioegi eta estuegi hartuko du bere burua eta egin-kizun handietara deitua. Ondorioz nola egin far munduaren salbatzaile izanen den batez... ezin. Hortan ari gara, beti beltz eta ilun, beti seriotan, handiegi heldu zaigun patuarekin ezin burutuz, tragikoegiz erridikulo ematen duten traiediako heroe handi-nahi eskasak.

Sena, euskal sena egin dugun iluntasun horretaz, erabat ahantziz horretaz gain badela gure buruez farrez lehertzen hasteko garaia.

Oi Jetsemani Jetsemani noiz arte?

✂ GURE AUKERAK

ANTZERKIA

'**Agua al fuego**' izeneko antzez-lana taularatuko du gaur ostirala, otsailak 24, Kilkarrak taldeak Zizur Nagusian. Udalak antolatutako kultur zikloaren barruan, gaueko 10.00etan hasiko da, Kultur Etxean. Sarrerak 400 pezetan salduko dituzte. Astelehenean, berriaz, Ados taldeak 'Robinson Crusoe' obra plazaratuko du leku berean, arratsaldeko 5.00etan; asteartean, 'Gure lurreko istorioak' Shambu Teatroyen eskutik eta asteazkenean Zirko Ttipiak 'Munduko malabaristenak' taularatuko du.

'**Otxoaren lorea**' izeneko lana taularatuko TEN Pinpilinpauza taldeak igande honetan Iruñean, Antzerki Eskolan. Haurrentzako antolatutako zikloaren barruan, arratsaldeko 6.00etan hasiko da. Sarrerak 250 pezetan salduko dituzte.

MUSIKA

'**Reincidentes**' Sevillako taldeak kontzertua eskainiko du heldu den ostegunean, martxoak 2, Iruñeko Reverendos dantzalekuan. Gaueko 10.00etan hasita, sarrerak 1.200 pezetan salduko dituzte takillan, aurretik erosiz gero 1.000 pezetan izango direlarik.

Anje Duhalde musikariak kontzertua eskainiko du bihar larunbata, otsailak 25, Ziordian. 'Korrika 9' AEKren ekitaldiaren alde antolatua, gaueko hamaitetan hasiko da.

'**Ttantaka**' Gareseko taldeak eta 'Contrasto' talde italiarrak kontzertua eskainiko dute bihar larunbata, otsailak 25, Iruñeko Gaztetxean. Inauterien aitzakarekin antolatuta, arratsaldeko 8.00etan hasiko da. Sarrerak 300 pezetan salduko dituzte.

ZINEMA

'**Los cachorros**' izeneko pelikula botako dute heldu den asteartean, otsailak 28, Iruñeko Olite zineman. Nafar Ateneoak Zinema Mexikarrari buruz antolatu duen zikloaren barruan, arratsaldeko 8.00etatik aurrera ikusteko parada izango duzue. Sarrerak 350 pezetan salduko dituzte.

'**La ley de la calle**' izeneko filmea eskainiko dute igande honetan bertan Iruñeko Gaztetxean, 'Eguzki Bideoak' programaren barruan. Arratsaldeko 7.00etan hasita, filmea ikusteko sarrera dohainik izanen da.

NAFAR KRONIKA

JON ALONSO

Agur eta ohore

Hainbatek dio Euskal Herriak munduari eskaini dizkion gauzen artean, bi bakarrik direla benetan funtsezkoak, bene benetan unibertsalak: euskara eta pilota.

Batzuetan galdetu diot nire buruari nola azaldu litekeen, nola laburtuko nuen kirol hau zer den pilotarik ezagutu ez den toki batean. Nola azaldu plazak zenbat forma har ditzakeen —ezker paretarekin edo gabe, edo batera paretarik gabe, edo arkupea, edo...—, eta nola azaldu frontoiak, guztiak

itxuraz igualtsuak izanagatik ere, beti diferenteak direla. Nola pilota eskuaz, luze-laburrean eta lodi-meharrean diferente diren egur ziriaz, hainbat eratako saskiaz, guanteaz eta sareaz astintzen dela, nola pilotak borobila izatea daukala baldintza bakarra, gainerakoan diferenteak direla mate-

rialaz, tamainaz, pisuaz, tokeaz...

Eztabaidatzeko izango da, eta da, aberastasun hori guztia abantaila ala atzerapena ote den —imajinatzen al du inork saskibaloia kantxa batean sas-

ezagutu ez duen bati. Halako kasu zail batean, Retegi kantxa pare bat minutu ikustarazi litzateke irtenbide ia bakarra.

Eskuina? Onena. Ezkerra? Leninek berak beretzat nahi izango zuena. Hankak? Jain-

ko en opari. Burua? Gutxi izan duen bezalakoa. Keme-na? Errege.

Pilota maite dugunok, igandetik daukagu esku ahurrak bero bero eginda. Pilota maite dugunez, eskuak hezur gorri eginda uzteraino txalotuko dio-

gu kantxara ateratzen den azken egunean. Frontoira sartu eta Retegik ez duela jokatzeko konturatzen garen egunean hasiko garela benetan sentitzen joandako urteen zama. Nahiz eta, zorionez, igandekoaren ondorioz, oraindik urtebeteko —gutxienez— gatzetasuna oparitu digun.



ASTEKO PERTSONAIAK



Javier del Castillo
Zangozako alkatea



Dora Salazar
Eskultorea

Berak espero ez bazuen ere, aste honetako protagonista bihurtu da Javier del Castillo Zangozako alkatea, Alli lehendakariak Sanz ia kargu guztietatik kendu eta bera izendatu baitu Lurralde Antolaketa eta Ingurugiroa eta Tokiko Administrazioa saileratu buru. UPNko beste hainbat militante historiko bezala garai batean Alliren aurkari izan zen arren, azkenaldian lehendakariaren alde jokatu du. Bere leialtasunak izan du ordaina eta legegintzaldia bukatzeko falta diren hiru hilabete hauetan berak beteko ditu aipatutako karguak. Jokaera honekin «ateak ixten ditudala badakit, baina kargua erantzunkizunagatik onartzen dut», azaldu zuen Del Castillo hurrengo egunean bertan. Ez dira, ez, honekin amaituko UPNko 'kulebroi' honen kapituluak.

Dora Salazar eskultore altsasuarrak Strassbourgeko (Frantzia) Arte Garaikideko Lehen Azokan parte hartuko du heldu den martxoaren 3tik 6ra bitarte, Xavier Etxeandia arte galeriaren bitartez. 11.000 m²ko zabalera batean, 120 arte galeria inguru bilduko dira bertan, Europako Kontseiluaren babesean egiten den azoka garrantzitsu eta handi honetan. Ez da Dora Salazar artista altsasuarra atzerrira ateratzen den lehendabiziko aldia, 1992. urtean Berlingo 37 Rüame galeria ospetsuan eta 1994an Belgikan eta Frantzian eskegi zituelako bere lanak, baina bai akaso garrantzitsuena, arlo honetan egiten den azokarik indartsuena izan nahi baitu Strassbourgeko Arte Garaikideko Lehen Azokak.

AHAZTU GABE!

INAUTERIAK



Alde Zaharreko Koordinadora Kulturalak antolaturik, hasiak dira dagoeneko Iruñeko Inauteriak. Gaurko ekitaldiak arratsaldeko 8.30etan hasiko dira, Burgoen plazan 'matxismoaren kontrako akelarrea' egingen baita, Berriozarko txalapartarien laguntzarekin. Ondoren, tabernaz tabernako jirabira San Zernin burgoan barna Gaztetxean amaitzeko. Mozorroturik daudenentzat edaria musu truk izango da. Bihar goizean haurrentzako kalejira antolatu dute. Eguerdian puska biltzeari ekingo diote, ondoren hamaitetako egiteko. Zazpi t'erdietan Festa Zapatista hasiko da Zapateria kalean. Gauean, Salsa Gaua izanen da Auzo Elkartean. Iganden, haurrentzako antzerkia Burgoen plazan eta astelehenean herri zantzararak aterako dira, arratsaldeko 8.00etan, San Zerningo putzutik. Ondoren, sardinjana dago Pellejeria txokoan. Asteartean, soinu joleen kontzentrazioa izanen da 7.00etan, eta 9.00etan inauterietako sua piztuko da. Navarrieriako Mesonean Melody Sisters taldea ariko da 9.30etan, kafe-antzerki obra bat eskainiz.

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, asteleheneetik ostiralera, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etati 22.00etara... 'Karakola segi hola' gazteendako saioa.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

KARRAPE IRRATIA FM 107.8

Asteazken zehar, 12.20etatik 12.35etara 'Gauza guztien ginetik' edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak...

Altsasu

Sakanako ikastolek bertoko ikastetxe publikoei erantzun diete

ALTSASU

Altsasuko Iñigo Aritza Ikastolak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) ezartzeko Nafar Gobernuak eskatzen dituen baldintzak «inolako arazorik gabe» betetzen tituela azaldu du prentsa ohar baten bidez, eta, hori dela eta, «datorren urterako erronka horri aurre egiteko prest» dagoela.

25 urteko historia luzean lortutako esperientzia azpimarratu dute horretarako ikastolako langileek. Horrela erantzun diote joan den astean Sakanako ikastetxe publikoek ateratako oharriari, bertan Nafarroako Gobernuak ikastolen alde ez ote zen egiten ari galdetzen baitzuten. «Norberak berea defenditzeko eskubide osoa ez dugula inola ere zalantzan jartzen» azaldu dute ikastolako ordezkariak landutako idazkian, «baina eskubide garrantzitsu horrek ez luke inore (zenbaiten jarrean, agian, antzeman litekeena) bestean lan eta ekimena gutxiestera bultzatu behar».

DBH Sakanan ezartzeko negoziatioek polemika piztu dute inguruan, Bortzirietan gertatu zen bezala. Ikastolak aspaldian hasi ziren lanean horretarako eta azken urteotan egin diren Nafarroa Oinez askoren etekinak hori lortzeko behar diren inbertsioak egiteko bideratu dira. Ikastetxe publikoek, beren aldetik, dagoen azpiegitura aprobetxatu egin behar dela azpimarratu dute, bestela diru xahuketa izugarria izango zelakoan.

Iñigo Aritza ikastolako langileek ikastolak hainbat urtetan egindako lana azpimarratu dute «sekulan behar hainbat baloratu ez den ekimenean», eta egokitze lana sakona egin dela. Iñigo Aritza ikastolako kalitateari dagokionez, 25 urtetako historia luzea dela diote. Halaber, ikastetxe publikoek eskatutako atxikimendua beraiendako ere nahiko luketela azaldu dute Altsasuko Ikastolako langileek.

Etxarri Aranazko Andra Mari Ikastolak, bere aldetik, polemikak saihestu nahi izan ditu, baina errespetu osoa eskatu du ikastetxe publikoei, «ez baita inolaz ere gezurrak edo irainak bota behar ikastetxe baten kalitatea eta lana azaltzeko». Halaber, hurrengo ikasturtean ere klaseak bertan emango direla dio idazkiak, eta Bigarren Mailako hezkuntzan Sakanako ikastoletan emango dela ziurtatu du, «Nafarroako Gobernuak horren alde azaldu delako beti».

Ziordia



Mendigorriako Pablo Ugaldek jaso zuen AEK-ren urte osorako soldata.

Korrika abian jada

PATXI ULAIAR / IRUNEA

Ziordiak zabalduko du Korrikaren inguruan osatu den 'Korrika kulturala' ekitaldia, bi urtetik behin euskararen alde egiten den manifestazio honen ibilbidea zeharkatuko dituen herriak girotzeko prestatu den programazioa, alegia. Anje Duhalde, Ama Say eta Zarama taldeek larunbat honetan emango duten kontzertua, horrela, lehen lekukoa izango da Korrika 9 honetarako.

Ziordiaren ondotik, Goizuetak hartuko du txanda, heldu den martxoaren 4an izango den kontzertuarekin, eta martxoaren 10ean, ostirala, Lesakan izango du jarraipena, Koxkonta sagardotegian antolatuta den bertso saioarekin. Bertan egongo dira Peñagarikano, Xabier Amuriza, Estitxu Arozena eta Unai Itu-

rriaga bertsolariak. Hurrengo egunean, martxoak 11, Baldin bada, Etsaiak, Patagonia eta Beltzez taldeek kontzertua eskainiko dute Erratzun.

Esan bezala, girotzeko egitaraua da Korrika kultural hau, martxoaren 16an Donibane-Garazin hasiko den korrikaldiaren aurkezpen gisa, eta aurten omendu nahi dituzten bi pertsonen —Mikel Laboa eta Bernart Etxepare— inguruan dago osatuta. Hori dela eta, euskarazko lehen liburua kaleratu zenetik 450 urte aurten bete direla eta, Donibane-Garazin bertan ekitaldi berezia osatu da, 'Garazi-korrikarazi' izenekoa.

Bertako korrika batzordeak antolatuta, Martxoaren 10ean —ostirala—, Donibane-Garaziko Bakarra ostatuan, gaubeila izango da Itxaro Borda idazle be-

henafarrarekin. Ondoren, martxoaren 13an, solasaldia izanen da Herriko Etxean, arratsaldeko 8.30etatik 10ak bitarte. Gaia, 'Euskaraz non?'. Hurrengo egunean, martxoaren 14an, Korrika Ttipia egingen da Baigorri, eta hil bereko 14tik 16ra bitarte 'Euskarazko filma festibala' ospatuko da Donibane-Garazin. Korrika aterako den egun berean ere ez da egitaraurik faltako, kantaldia izanen baita ondoko talde hauekin: Eskuk, Sustrai eta Maixa eta Ixiar.

Bigarren urtez da ospatzen Korrika Kultural deritzona, baina aurten inoiz baino kutsu kulturalagoa izango du, duela bi urte, kasu, kirolarekin nahasita egin zelako. Halaber, aurtengoan gehiago erreparatuko zaie herri txikiei, haietan antolatuta baitira ekitaldi gehienak.

Izura

LUTXI FOURCADE / BAIONA

Haize Berria ufatzen Oztibarren

Oztibarre, Amikuze eta Iholdiko lagunek bultzaturik, Haize Berri kultur etxea sortu zen animazioa bultzatzeko Nafarroa Behereko xoko honetan, Eihartzea Hazpamen eta Uhaitza zentroak Zuberoan egiten duten bezala. Urte osoan guneak eskaintzeaz gain dantza eta musika kurtsoak emateko, erakusketa, ikusgarriak, dantzaldiak edo kantaldiak antolatzen ditu bertako artisten ezagutarazteko edo kanpoko artisten bozak entzunarazteko.

Horrela, hirugarren Haur Kantu Xapelketaren antolaketan parte hartu zuen zentroak. Zazpi probintzietan iraganen den elkarretaratzea 6 eta 14 urte arteko haur eta gazte guztiei irekia da. Probintzia bakoitzean finalerdi

bat antolatuko da eta Ipar Euskal Herriari dagokionez apiril-maiatzetan iraganen dira: apirilaren 2an Aiziritzen (Nafarroa Beherea), maiatzaren 20an Mugerren (Lapurdi) eta maiatzaren 28an Alzürükün (Zuberoa). Parte hartzeaz interesatuak diren gazteek bakarrik nahiz bikotean edo talde batean kanta dezakete, musikarekin edo gabe. Obra, norberak sortua edo ohiturazko kantua izan daiteke. Haize Berri zentroak Nafarroa Behereko kantarien izenak hartuko ditu, Eihartzeak Lapurdikoenak eta Uhaitzak Zuberoakoenak.

Bestalde, aspaldiko partez ihauteria iraganen da Oztibarren,

kultur etxeak eta Bunuztar xoriak taldeak bultzaturik. Urtarri-lean gomita luzatu zieten besta komite, kultur elkarte eta eskola guztiei antolatutako ihauterian parte hartzeko, eta ideia hasieratik ongi hartu zutela azpimarratu zuten. Elkarrekin lanean ari izan ondoren, otsailaren 26an Larzabalen iraganen den ihauterian egitaraua finkatu zuten.


Bi hitzordu horiek baino lehen, arrats honetan 'Marraskirri' erakusketaren estreinatzea egingen da. Sasoi, abere, izadia, prima, kultura, hots 'agrikulturaren' petigora eta gainbeheretan ibili dira aurtengoan marraskilariak. Abentura ikaragarri honetan ia hogeit hamarrek parte hartu dute, eta 6. Marraskirri honen estreinatzea arratsko 9 oretan egingen da kultur etxean.

Kartzelako gaia

Juan Kruz Lakasta

Onttoak

Amak txiki-txikitatik esan dit alferrontzi amorratua naizela. Erditu banindu bezala ezagutzen nau, eta, jakina, ez dabil oker. Ezin uka dezaket alferra naizela, oso alferra. Gauzak azken unean, arnas-estuka egiten ditut beti. Kartzelara sartu aurretik asko eta asko dira egin beharreko gauzak. Lehenik eta behin familia, neska, lan eta ikasketa aferak konpondu behar dituzu, eta horren gibeletik, afera materialak. Sartu beharreko gauzen zerrenda luzea da, kasik amaitezina. Plastikozko edalontzia, artilezko eskularruak, zigiluak, sobreak, bisitaztera etorriko diren izen-abizenak eta NAN zenbakiak, galtzerdiak, irratia, galtzontziloak, galtzontzilo luzeak, liburuak, txandalak, kirolean aritzeko zapatilak, etxeko zapatilak, dutxarako txankletak, dutxarako txankletak, dutxarako txankleetaak.



Jakina, zerrenda horren mardula eta nire alferkeria horren handia izanik, zerbait ahaztu egin behar zitzaidan, eta halaxe gertatu zen. Urtarrilaren 16an, kartzelan sartzean nengoela, dutxarako txankletarik ez nuela konturatu nintzen. Dendaz denda hasi nintzen horien bila, baina astelehena zen, eta zapatadenda guztiak itxirik zeuden. Guztiak? Ez, foru erresuma zaharreko hiriburuko zoko ezkutut batean iruindar peto-peto batzuen dendak orain eta beti aurre egiten dio astelehenetan ixteko ohiturari. La Mañuetan, astelehena izanik ere, txankleta itxurosoak lortu nituen bostehun pezetaren truke.

Horiek oinetan jantzirik dutxan sartu naiz gaur. Erreniagako gailurrean inoiz izan ez den haize bolada hotz baten erdian ur epe-laz dutxatu eta gero, dutxatik atera naiz. Nik kanpora egin dut, eta Lamañuetako txankletak dutxan geratu dira, haien belkroak ez baitie oinei eutsi. Horren ondorioz, gutxiatik ez naiz lurrera erori, eta oinak dutxako zoru irristakor kutsatuan jarri ditut. Agh! Seguru asko, oinetan aterako zaizkidan ontto, ziza eta beste gainerakoekin bila etorriko diren intsumitu gipuzkoarrez betekoa da aurki kartzela. Ene hankasartzea intsumisioaren onerako izan dadila.

Musika talde nafarrak aukeratzekoan, edozer gauzari buruz aukera egiterakoan bezala, iritzi eta uste subjektiboak ezinbestekoak dira, are gehiago ezein datuk ez badie sinesgarritasunik ematen. Guk hiru aukeratu ditugu, sortu berrien artean zeresanik eman dezaketenak. Noise Hole, Fools de Txirris eta Jugos lixiviados, horra gure kiniela hurrengo urteetarako.

NOISE HOLE

Beratik, euskaraz eta ingelesez abesturiko rocka

ALBERTO BARANDIARAN / BERA

Jakina da Igantzitik Endarlatsarainoko bitartekoek gehiago begiratzen dutela Bidasoa aldera Baztan aldera baino, eta ez da arraroa Beran sortutako musika talde bat ezagunagoa izatea Gipuzkoan ezen Nafarroan. Jakina da ondoko lurraldean kontzertu eta musika afera handietan tratuagoak direla, eta ez da Amerika deskubritzen talde askoz ere gehiago daudela esaten baldin bada. Noise Hole, horregatik, Gipuzkoara begira egon da bere historia laburrean, duela hiru urte Anxel eta Fermin Iraola Raul Garciarekin elkartu eta taldea osatzea erabaki zutenetik, hain zuzen ere. Han eman dituzte kontzertu gehienak, eta han dira ezagunak. Han grabatu zuten maketa, eta hango taldeekin hasi ziren ohizko zirkuituetan sartzen. Baina gure artean gutxi —Bortzirietan izan ezik— jo baldin badute ere, fama egina dute dagoeneko, eta talde gazteen artean zeresanik emango dutelakoan daude asko.

Beratakk dira denak, Lesakako estreinako bateria joleari Igor Teiletxea gazteak lekua hartu baitzion duela gutxi. Beñardo Goietxe abeslariak eta Petti Perez gitarra joleak osatzen dute taldea, eta sei izanik, eszenatikietan sartzeko arazoak ezezik, ados jartzeko gora-beherak ere ez dira falta, behar den bezala. Hasteko hizkuntza. Ingelesez eta euskaraz abesten dute, eta kalean den maketan, esate baterako, sei dira gure hizkuntzan eta lau Shakespearearenean. Ingelesa aukeratzearen atzetik normatik atera nahia dagoela dio Anxelek. «Lehen bazen euskaraz abesten zuen talde pila, eta toki guztietik entzuten genuen historia bera: erdararekin borroka eta guzti hori. Batzuetan horrek nekatu egiten zaitu, eta gure aterabidea hauxe izan da, ingelesez abestea. Gainera, Ferminnek euskaraz abesten duen beste talde batean

—Labanak— jotzen zuen, eta zerbait desberdina egin nahi zuen». Beñardo abeslariak bestelako iritzia dauka, ordea. «Ni euskaraz egitearen aldekoa nintzen, baina bozketa egin genuen, eta horrela atera zen, ingelesa ere sartu behar genuela». Gaztelania bazter uzteko borondatea, nolahi ere, ez du inork eztabaidatzen.

Bi hizkuntzak erabiltzeko barrura begira eztabaidaren bat besterik sortu ez badu ere, kanpora begira asko begiratzen duten detailea dela azpimarratu dute taldekoek. Iazko Bazkotan grabatu zuten maketa ekainean hasi ziren banatzen toki guztietan —Madrildik Parisera, Bilbo barne—, eta toki guztietatik jaso dituzte mota askotako iritziak, asko hizkuntzari lotuta. «Hemengo batzuek esan digute euskaraz eginez gero ongi dagoela, baina ingelesa... Madrilen, bestalde, ingelesezko kantak oso ongi daudela diote, eta euskarazkoek ez dutela merezi».

Euren musika sailkatzerakoan ere, ez da adostasun handirik taldekideen artean. «Rock melodikoa» aipatu du Beñardok, «rock & rolla» Pettik. «Gustatzen zaigun zerbait egin nahi dugu, ez modak edo markak sailkatutako zerbait», dio Raullek.

Bostehun bat maketa banatu dituzte fanzine, irrati, egunkari eta aldizkarien artean, baina oraindik ez dute inolako kontakturik izan beste zerbait grabatzeko. Gehiegi ere ez omen dute kezkatzen, orain buru-belarri ari direlako abesti berriak sortzen, martxoan hasiko duten kontzertu errondari begira. Azkoien izango da zita, baina, beti ere, ez zaizkie Gipuzkoatik eskaintzak faltako. «Big Crunch taldekoekin lortu genuen harremana, eta horiei esker toki askotan abestu genuen», azaldu du Anxelek. «Azkenean ibilbide batean sartzea da garrantzitsua».



Noise Hole taldea duela lau urte osatu zen.

Toki guztietan entzuten genuen kontu bera: erdararen aurkako borroka eta. Horrek nekatu egiten zaitu eta gure aukera ingelesez abestea izan zen».

Buru-belarri ari dira orain abesti berriak prestatzen, martxoan hasiko duten kontzertu errondari begira. Lehendabizikoa Azkoien izango da.

Orain arte lortutako diru apurra tresnak eta maketa ordaintzeko balio izan zaie, nahiz eta batzuetan justu-justu afaria ordaintzeko atera duten. Jotzeko toki gustukoena lokal txikiak dituzte, zuzeneko talde baita Noise Hole. «Kaseta ez zaigu zuzenean bezain ongi gelditu, jendearen aurrean gauza askoz gehiago eman dezakegulako». Izan ere, jendearen gustukoa izatea baitute helburu: «Ongi pasatzea eta ahalik eta jende gehiagorengana heltzea da gure asmoa».

JUGOS LIXIVIADOS

Diskodenda batean osatu zen taldea

A. B. / IRUNEA

Taldeak osatzeko talde adina modu izan daitezke, tartean diskodenda batean paratutako iragarkiak. Halakoxea izan zen Jugos lixiviados taldea osatzen duten partaideen arteko lehen harremana. 1993ko urtarrilean izan zen, eta Mikel Fuertesek eta Andres Izagirrek egin zuten topo orduan. Uda hartan ezagutu zuten batera jolea izango zen Joxemi Jaunarena, eta urrian baxua jotzen duen Raul Bernarte. Urtebete egon ziren erritmo kutxa xume batekin, baina behin maketa kalean izanik, kontzertuak heldu ziren. Hasieran Iruñerrian —Herriko Taberna, Gaztediaren Etxea, Gaztetxea, Donegal—, gero kanpora jauzia egin zuten, eta ez edonora, Madrilen jo baitute azkeneko aldiz.

Esperimentalak direla diote batzuek, psikodeliko samarrak beste batzuek. Bereziak, nolahi ere, originalak. «Denetarik deitu digute» azaldu du Mikelek. «Punky, psikodelikoak, antzinako rockzaleak, esperimentalak... deitu digute era guz-

tietako gauzak, kontrajarriak izanik ere, baina guri gauza asko gustatzen zaizkigu. Gaur egungo taldeen artean Madrilen beraiekin jo zuten bi taldeen izenak aipatu dituzte: Pretty fuck luck eta Solex.

Madrilera egindako bisita izan da, dudarik gabe, talde honen historiaren gauzarik azpimarragarriena. Antsoingo Gaztetxean eman zuten estreinako kontzertuan txistuka agurtu zituzten, kasu, eta Iruñeko Gazteriaren Etxean eskaini zutena «70 minutuz akoplaturik egon zen kitarra bat» izan zela diote. Baina Madrilera bidali zuten maketa gustukoa izan zitzaizen hango kritikariei eta Maravillas taberna famatuan jotzeko aukera eskaini zieten. Taberna ez zen beren gustukoa, eta kontzertua gaizki ateratu zen, «ia beti bezala», baina, hala ere, Murky Patrullero Mancuso taldekoek jendea gustatu zitzaizola esan zieten.

Hor sortu zen diskoa grabatzeko aukera, Murkyk eraturako Ale Hop disketxearekin, eta dagoeneko grabatuta daukate lau abesti biltzen dituen singlea, bi



Jugos lixiviados taldeko partaideak, Madrilera kontzertuaren ondoren.

Madrileko Patrullero Mancuso taldeko Murky osatu duen Ale Hop disketxearekin grabatu dute lau abesti biltzen dituen singlea.

hilabete barru kalera aterako dena. Puddy Galone taldearen bertsio bat eta taldeko hiru kanta daude bertan. «Nik banekien 1995ean disko bat grabatu behar genuela», dio Mikelek. Kanta guztiak ingelesez daude, «entzuten dugun musika guztia ingelesez dagoelako, eta oso soinu ona ateratzen diogulako». Andresen arabera, ongi pasatzea da taldearen helburua, eta musika

oinarrizkoa egiten dutela dio. «Lau akorde saiatu, eta soinu ona baldin badauka, nahikoa da, ez gara konplikatzeko». «Zuzenean asko hobetu dugu soinua» azpimarratu du Mikelek, «lehen benetan txarrak ginelako. Orain halamoduz jotzen dugu».

Aurten Bilboko Rock Lehiaketara aurkeztu dira, eta aukeratu ez badituzte ere —600 talde inguru zeuden—, botoren bat jaso

dutela esan diete. Hala ere, ez dituzte oso gustukoak lehiaketak. «Nafarroako lehiaketarena penagarria da: ez dute kalean jotzen uzten, eta gero lehiaketak antolatzen dituzte». Ez dute diskoarengatik ezer kobratu, eta daukaten ekipoa «penagarria» dela diote. Ez dira bakarrak. Noise Hole taldea, «gutxi» ezagutu arren, gustukoa zaie baina Fools de Txirrisi buruz ez dute hain iritzi ona. Mikel, halabaina, zuzen-zuzena da beste talde bati buruz: «Dinosaurios taldeak egiten duena aipatu nahiko nuke, mesprezatu egiten ditut eta, oso txarrak dira».

FOOLS DE TXIRRIS

Funky nafarra, Mano Negraren zaleak

A. B. / IRUNEA

«Orain arte ateratu dugun guztia ekipoa eta materiala ordaintzeko izan da. Aterako dugun hurrengo diru puxka banatzeko izango da, lehendabiziko aldiz». Roberto Irisarri Fools de Txirris taldeko baxua kexu da Iruñean jotzeko dagoen aukera urriaz baina, hala ere, Iruñerrian egin dituzte ia kontzertu guztiak, Agoitzen egin zutena kenduta. «Hamar mila pezeta ordaindu zizkiguten, eta bost mila faltuak ziren».

Urtebete eskas darama kontzertuen munduan Fools de Txirrisek, baina kritikarien artean toki bat egin dute dagoeneko. Hasieran bertsoak egiten buru-

belarri, abeslaria batu zitzaizkion hasi ziren abestiak osatzen, eta gaur egun 15 bat dute, laster kalera ateratu nahi duten maketan bilduko dutenak. Denak funky musikaren ingurukoak direla diote, eta behin gorrotatzen duten etiketa jarri zieten: 'funky rock amerikarra'. Hala ere, estiloa zehazteko arazoak dituztela aitortu dute. «Denentzako jotzen dugun lehendabiziko taldea da hau, eta zaila izaten da ados jartzea. Nahasketa asko egin behar dira, eta bakoitzak ateratzen zaiona egiten du». Funky nafarra dela diote, hala ere.

Hasieran musikak osatzen dituzte, gero 'ingeles bikingoa' deitzen dutenarekin osatu, eta



Fools de Txirrisen lehen kontzertua, Iruñeko Herriko Tabernan.

azkenean hitzak osatzen dituzte. Hala ere, hitzak badu bere garrantzia; izan ere, garrantzitsuen jendearendako atsegingarri izatea da. «Hori da gure ilusioa: jendea gustatzea. Famatua egitea zorria da, ez besterik. Guk nahi dugun jendea josta dadila gure musikarekin, nolabaiteko atxi-

kimendua izan dezala. Bestela erretzen zara, porrot egiten duzu».

Mano Negrarekin joko lukete gustora, eta inbidia diote Madril lortu duen eraginari. «Hemen bildu beharko genuke gehiago kontzertuak antolatzeko eta lehiaketa paraleloak egiteko, adi-

bidez. Izan ere, hemengo pop-rock lehiaketa pribatua da ia, beti toki berean grabatzen delako. Gainera, urtean zehar hemengo taldeen alde ezer egiten ez duten lokaletan egiten dira gero finalerdiak». Iaz zazpigarrenak gelditu ziren, eta baliteke aurten ere aurkeztea.

Karol ederreña

Galdera: Karoli, auzoko nesketan ederrenari, kulebroi ameriketarrik guri biska adina gustatzen zitzaizkion. Britain Nagusira ourpair joan zen eta etxeko nagusiarekin maitemindu. Bells-bells-bells-Well-Well-Well. Aste bat eman zuten Eskozian, ostatutik atera gabe euria etengabe ari baitzuen. Port Royal-eko zubitik desio bat bota zuen uretara, bost peniketako. Bells-bells-bells-wells-wells-wells. Orain bisky eskoziar baten errepresentazioaz gain taberna bat dauka eta haren auzoko mutilok, Karolez betiko begia hautatu zitzaigunok, bezeroetan ohizkoenak izaten gara. Well-well-well. Bells-bells-bells-bells. Haren eskopeta begiekin gu akabatu, eta haren biskyarekin berpizten gaitu. Egutero, hiruzpalau aldiz. Zer egin genezake? Begi bistan denez, mozkor ederra bildu dut. Nola ez? Karolen tabernatik bainator. Bells-bells-bells-wells-wells-wells.

Erantzuna: Amodioaren ezinegonak biskyz kontsolatzea ez da irtenbide desegokia. Ematen du Karolek zerbitzatzen duen biskya kalitate onekoa dela. Geroan pentsatzen gauzak egiteak jai du. Lehendabiziko pausu horixe da. Biskyak kalitate onekoa izan behar du. Eta geroakoak gero. Zuen sos guztiak taberna horretan ahi-tzen dituzuelarik, gorriak ikusiko dituzue, dudarik ez. Euliak gozora bezala, bihotz penatuak tristurara joaten dira. Eta ederki kostata lekutzen dira hortik. Sendimendu hori eldarniagarria dugu, eta zure kasuan askoz ere gehiago. Pena bortitza denean, goia jo eta segituan jeisten da. Aitzitik, zuena bezain epela denean, gutiragutira zuen buruan sartu, eta gero ez dago ateratzetik.

Biztertio atarramendu artistikorik horri ateratzen saia zaitezte. Punk taldetxo bat bildu eta erromes joan No future-ra, edota hasi



Amodioaren
ezinegonak biskyz
kontsolatzea ez da
irtenbide
desegokia.

pintatzen irudi hiruzabalu-luzekoak, edota entzierroan lasterka ibili begiak zapiz estalita eta lanaba bat ahoan edukita, edota botikak banatu Somalian. Hau da, zuengatik egingo ez zenuketena, besteongatik egin ezazue.

Galdera: Dotore jaun sendagarria: Zozaya eta Almudena, Bentako alaba ederrak ziren. Batak gereziak jan ohi zituen hegoaldeko leihoan, besteak, ordea, melokotoiak iparraldekoan. Gaur Bentak gereziondo bat dauka hegoaldean eta melokotoioia iparraldean. Zozaya eta Almudena, Bentako alaba ederrak. Han neukan nire gogoa, Bentan, gereziondo eta meloko-



Pamielak argitaratutako 'Caínes navarros' liburuaren ilustrazioa.

Gai eta afera
zumeetarako ez
dago ez patroirik
ez Nobel saririk.

toiondoen artean. Hondarreen frutategi bat paratu Yangüas y Miranda karrikan, eta aberastu egin nintzen. Jakina, dendaren ize-na horixe duzu, Zozaya eta Almudena, haiek izan baitziren nire negozioetako 'musak'. Motzurdin segitzen dute Bentan, eta ni Paper Dist

Klasiko bitxi arrant klasiko

Joxemiel Bidador

Ihartzeren itzulpena

Jean Luc d'Ihartze medikuaren liburuaren euskarazko testutxoaz



Aurreko astean solasgai ukan Mongongo Azantzaren albaitaritzaren gutuna halako giro berezi baten barnean koka beharra daukagu nonbait, berak zakartzan erremedio oro ezbeitziren bere idurikoak ez inondik inora ere, eta garaitako moda konkretu bategi irekiriko arloan ulertu behar. Jada Guy de Chauillac izeneko sendagile frantxak **Le grande chirurgie medecin tres fameux de l'université de Montpellier** izenburuko liburua argitaratzen ematen du 1363. urtean. Denborak joan denborak etorri, herriko medikuntza garatzen duen aunitzez lan gehiago sortzen dira, gure tximistaren lantxoak albaitaritzan egin gisa.

Le régime de santé izenburuan agerikoak, eta bidebatez salernoko eskolaren metodoan oinarria duenak, XVI. mendeko Frantzia berean ere argitalpen gehien izan zituen osasun **collectaneum** lana dugu. Gehixeago ere baziren Europako moldiztegietatik elkiriko lanak. Ospe haundienekoen artean, 1512. urteko **El tesor des povres** izeneko, Arnould de Villenove Montpelierko medikuak ondua. Are ezagunagoak jazo ziren Alberto Haundiaren **De secretis mullierum libellis**, Lyonon agerikoa 1557. urtean, edo Alexis Piemontekoaren bere sekretuak, Italian lehenbizikoz ageria 1555. urtean. Famazkoak ere 1532. urtean André Fournierrek idatzi **La decoration d'humaine nature et ornement des dames** edo Jean Liébaulten bere **Thrésor des remèdes secretes pour les maladies des femmes** Parisen agertua 1587. urtean.

Halarik eta guziarekin ere, lanik aipatu nola inportanteena Lauren Joubertena dugu duda izpirik gabe. Bere **Erreurs populaires au fait de la médecine et régime de la santé**, Bordelen argira jalgia zen 1578. urtean. Jouberten asmoak aisa ulertzeak ditugu: herriko medikuntza horren arruntak gerta ha maika erremedioen argitzea, eta aitzinetik lan ugari luzatu sinismen huts frango garbitzea ahal zen neurrian bederen. Liburuak pentsalarien artean batik bat lortu

zuen arrakasta, herri xume xehian ohiartzun eskax xamarra soilik lortu zuena. Bestaldetik sexuaz oparo eta zeazkiegi luzar duratzeaz ere leporatu zioten garaiko gainontzeko mediku etsiek, moralarendako ekar zitzakeen ondorio txar guziak zirela eta.

XVIII. mende bukaeraldean 1776-1777 urteetan hain zuten medikuntzaren erret elkarte **Société Royale de Médecine** alegia, sortu zen Frantzian. Elkargo honen gerizapean zenbait autorek beren idazkiak plazaratu zituzten. Haien artean etorkin eskoziarrek Primerose jaunak 1639. urtean Amsterdamen agertarazi zuen **De vulgus erroribus in medicina** liburuaren itzulpena M. Rostagnyren eskutik edo Anthelme Richerandek eginikoa bere 1810. urteko **Des erreurs populaires relatives à la médecine**.

Dena den bada guri arras interesgarri seguru suerta dakigukkeen beste lantxoaren bat euskaldun batek egin eta Parisen 1783. urtean agertu zena, hau da, Jean Luc d'Ihartzeren **Erreurs populaires sur le médecine**. Ihartzek honetako liburu frantses ederrean moldatu zuen, baina apikak bere euskalduntasuna agerian uzteko edo, liburuaren aurrekaldean berean eta frantsesezko izenburuaren jarraian euskarazko honako translatione hau paratzen du lasai asko: **Je done ici le titre de mon livre en basque écrit come on doit le prononcer, les curieux le liront s'ils veulent. Miricountzaren gaineko populouliaren faltac, libourou, officio hartaco eñtirenen arguitzeco, miricountzaco thermino bada eta eñbada cerbitzatou behar iñan direnen esPLICATIONIAREKIN. De Ihartzek escoutari, miricou, eta erregeruen miricou icendatouiaic eñguina.**

Hemen akitzen da Ihartzek egingako itzulpen laburra. Benetan mingarria, izan ere, Europako izkiriari horrenbeste liburu hornituriko moda batean euskarazko teste bat egotea guziz desiragarria eta atsegina suerta litzatekeelako.




■ Nafarroako Banakako txapelketako laugarren ihardunaldiko partida, 1995eko otsailaren 11an jokatua. Unai garbisu, 2.330 ELOkoa-J.J.Cortes, 2.265 ELOkoa.

1.e4,c5; 2.Zf3,e6; 3.d4,d4; 4.Zd4,Zf6; 5.Zc3,d6; 6.Ae3,Zc6; 7.Dd2,Ae7; 8.f3,0-0; 9.0-0-0. Erregeengainoko ohiko lasterketa hastera doa. Posizioari gainbegirada eginez gero, pieza txuriak aktiboagoak daudela antzematen da, beltzak atze-atzean itxita dauden bitartean. 9....Zd4; 10.Dd4. Aldaketa honek d6-ko peoia eta e7-ko alfilaren ahultasuna azpimarratu besterik ez du egin. 10....e5; 11.Dd2,Ae6;

12.Eb1,a6; 13.f4, Zg4. Peoia aldatu izan balute, bidea moztuta geldituko zen, baina arazo berriak sortuko ziren damaren peoiaren inguruan.

14.f5,Ze3; 15.De3,Ad7; 16.h4. Peoiaren eskaintza pozoitsua dena begibistakoa da (Dh3). 16....Ac6; 17.g4,b5; 18.g5,f6. Alfilaren posizio txarrak behartu du jokaldi hau. 19.Gg1,Eh8; 20.Ae2. Ikus Koadroa. Nagusitasunari azken ukitua falta zitzaion. Ederki asko aurkitu dute txuriek, partida maisutasunez borobiltzeko. 20....Gc8; 21.Ah5,Dc7; 22.De2,b4; 23.Ag6. Sarrera eta matea geldiezinak dira. Beltzak burua makurtu zuten.



Donostiatik ekarri zuten Barojatarrek Berara inude eta artzainen ohitura, eta bertan errotu, errotu ere. Gipuzkoako hiriburuan ez bezala, Bortzirietako hirian neskek artzainena egiten dute, eta mutilek, berriz, inudeena.



Lantz, Altsasu, Arizkun, Unanu, Elizondo, Igantzi, Amaiur, Erratzu, Olazti, Goizueta, Etxalar, Bera, Lesaka... Herri hauek eta beste askok ospatuko dute asteburu honetan inauteriak, urteroko festarik erakargarrien eta bitxienetakoa. Bortzirietako azken herri horietan, kasu, betiko ohiturak hiriko tradizioarekin nahasten dira, inudeak eta artzainak nahasten diren gisa berean.

Inudeak eta artzainak Beran

JON ABRIL / BERA

Asteburu honetan ospatuko dira Nafarroa osoko inauteri egun gehienak. Duela hilabete pasatxo hasi ziren goiztiarrenak, baina tradizioak agintzen du Hausterre-egunaren aurreko osteguna hasten dela urteroko ospakizun bitxiak eta ezezagunak. Puska biltzeak, mozorroak, hartzak eta akerrak, inudeak eta sorginak, trapu-zaharrak eta txanoak, ziripotak eta mairuak, Miel Otxinak eta Zaldikoak, momotxorroak, mozorroak eta zamarroak, mamuxarroak... denak aterako dira Nafarroako iparraldeko herrietara egun berezi hauek, jendea goxatu, jostatu, beldurtu edo asintzeko, tokian tokiko.

Asko oso ezagunak dira, urtero-urtero ikusmin izugarria bereganatzen dutenak. Beste batzuk —gero eta gutxiago, hori bai— herrikoen artean ospatzen dira, ia beti egin den bezala. Denetan aurki daitezke euskal kulturaren arrastoak, keinuak, usainak eta zapoak. Hauen arteko bi Lesaka eta Berakoak dira, ohitura zaharrei gizarte modernoaren zantzu batzuk erantsi dizkiotenen adibideak.

Mende hasieran, ohitura zen Berako artzainak beren bikotekideekin herrira jaitea inauterietan. Ohitura hau oinarri harturik, jaitsiera hori dantza bilakatu zen aldi berean Donostian eta Beran, Barojatarrek ekarria. Donostian gizonen gizonen papera betetzen dute eta emakumeek emakumeena, baina Beran, inauteri giroan sartzeko, paperak trukutzen dira, herriko mutiko gazteek inudearena egiten dutelarik, eta neskek artzainena. Momo erregearen babesean, herriko konpartsa atzean dutela zeharkatzen dituzte Berako kaleak, 'apaiza', 'medikua', 'deabrua', 'alkatea', 'epailea' edo 'militarra' lagun dituztela. Hiru abestiz osatua dagoen dantzan, inudeek (haur zaindaria) besoetan dituzten haurrak goiti eta beheiti botatzen dituzte irrintzi batekin batera.

Gerra garaian galdu zen ohitura hau duela 25 urte inguru jaso zen berriro ere eta orduz geroztik inauterietako igande goizean dantzatzen da. Asteburu honetan, arratsaldean, jende guztiak Zizkuitz txarangaren doinueta dantzatzeko aukera izango du.

Baina Berako inauterietako



egun handia astelehenean ospatzen da. Goizean, mozorroturik, herriko gazteak etxez etxe ibiltzen dira eskean, 'zingar-arraultze, zingar-arraultze, bat ez bada, bertze' abesten duten bitartean. Ilunabarrean, lagun taldeak Altxateko kalera irteten dira euren orgak erakustera, eta aurten Imuntzo eta Belokiren trikitixarekin dantzatzeko aukera izango dute.

LESAKAN ZAKU-ZAHARRAK IGANDEAN Lesakan, aldiz, larunbat arratsaldean hasten dira mozorroak kalera ateratzen, inauteriei hasiera emateko gau-pasa batekin ekiten diotelarik. Igandean kalez kale

ariko dira zaku-zaharrak, hau da, aurpegia estalia dutela belar idorrez beteriko zakuetan sarturik dauden gazteak. Hanka bakoitzean zaku bat eta gorputzean beste bat dutela, lastozko kapela buruan, Lesakako Musika Bandaren soinuarekin bat egiten dute, eskuetan pixontziari eusten dioten bitartean. Gauko hamarrak aldera, eta herriko ostatu guztietan oparian emandako ardoa dastatu ondoren, Plaza Zaharrera iristen dira eta herriko haurren laguntzaz, zakuak urratu egiten dira, eta barruko belarra plaza guztian zehar zabaldu. Zaku-zaharrendik gertu, mairuak agertzen dira, kolore biziko trapu zatiz jantzirik.

Ohitura hau ere Gerra Zibilaren garaian desagertu zen eta 70eko hamarkadan berreskuratu.

Astelehenean, goitiarrak etxez etxe ibiltzen dira puskek biltzen. Galtza eta ator txuriak eta zapel eta jertsei gorriak soinean dituztela, San Anton auzoko baserritarrak kriskitinekin eta esku soinuarekin ibiltzen dira, sei pausoko jota dantzatzen duten bitartean.

Gainerako herritarrak goizgoizetik beren orgak erakusgai ibiltzen dira herriko kaleetan, herriko musika bandak lagunduta.

Gau partean, inauteriei bukaera emateko, dantzaldia izaten da herriko plazan.

«Garapena bideratzea da gure lana»

EDURNE ELIZONDO / IRUÑEA

Vicente Taberna, arkitektoa eta Iruñeko Udalako Hirigintza zuzendari teknikoa, Iruñeko hiriaren bilakaera urbanistikoari buruz mintzatu zen asteartean, Hizkuntza Eskolako Konpainiako aretoan. Hogei atal ezberdinez osatutako Iruñeko hiriari buruzko liburua hartu zuen Tabernak oinarri, hirigintzari buruzko atala berak idatzi baitu. Liburua datorren astean aurkeztuko dute. Gai honi helduz, Iruñeko hirigintzak historian zehar izan

egin zuten eta 1000. urte inguruan, prozesu luze baten ondorioz, Erdi Aroko hiria sortu zuten. Hau izan da gaur egun arte iraun duen hiria.

EGUNKARIA.— Urte hauetan guztietan zehar zein izan da Iruñearen berezitasuna?

TABERNA.— Ezaugarri nagusia, beste hirietan bezala, tokia izan da. Kokaguneak garrantzi handia du, Pirinioetako bidea zaindu egiten baitu Iruñeak. Iparraldera, Europa aldera pasatzeko nahitanahiezko bidea da Iruñea. Ondoren, Barbaroen garaian, militaratu egin

zitu.

EGUNKARIA.— Zeintzuk dira hutsune horiek?

TABERNA.— Hiriaren zabalteza ez da berez gertatzen den gertatzen den zerbait, hiria handitu behar zutelako zabaldu zituzten harresiak. Handitze hori hiri barnean gertatu zen, harresien barnean. Hori dela eta, gure Alde Zaharra bete-beterik dago, eta ondorioz, asko sufritu duela erran daiteke, zabalteza behar baino beranduago gertatu baitzen. Garaiz kanpoko teknikak erabili zituzten, eta egiten ziren

izan zen. Hirugarrena, berriz, San Nicolas. Hiri hauen artean, inorenak ez ziren lurak gelditu ziren. Euren artean, gatazka eta istilu franko izaten zuten. Horien artean, Navarriako gerra famatua izan zen, XIII. mendean. Beste biek Navarria erabat suntsitu zuten. 40 urtez ez zen deus ere izan bertan. XV. mendean, Karlos III.a errege zela, hiru hiri hauen batasuna gertatu zen, 1423. urtean, 'Privilegio de la unión' agiriaren bitartez. Batasun honek hirigintzan ere ondorioak izan zituen, hutsuneetan hainbat eraikuntza publiko sortu baitziren, udaltea eta Gazteluko plaza, besteak beste.

EGUNKARIA.— Gaur egungo garaira etorri, zeintzuk dira

«Iruñea hiri zaharra da eta bere bilakaera urbanistikoa, ondorioz, oso luzea izan da».



Vicente Taberna.

JOXE LACALLE

duen garapenez gain, egun dituen ezaugarri eta arazo zehatzak aipatu dizkio arkitekto nafarrak EGUNKARIARI.

EGUNKARIA.— Zein izan da Iruñeko bilakaera urbanistikoa?

VICENTE TABERNA.— Iruñea hiri zaharra da, erromatarrek etorri baino lehenagokoa ziur asko; beraz, bilakaera luzea da. Hiru aldiz fundatutako hiria da Iruñea gainera. Erromatarrek etorri baino lehenago, herrixka bat izan zen Iruñea egun dagoen tokia, nahiz eta aztarna ziurrik ez egon. Bigarren aldiz, erromatarrek fundatu zuten, Kristo aurreko 64. urtean. Hiri hura —laurehun urte iraun eta gero— suntsitu

zen Iruñea. Apezpikuen hiria ere izan zen, baita hiri militarra berrirori ere, Donejakue Bidea ailegatu arte. Bide komertziala eta kulturala ere izan zen eta Iruñean izan zuen geltoki. Horrek hiriaren hedapena ekarri zuen. Irudiek agertzen duten bezala, hiru hiri ezberdin izan ziren. Ondoren, berrirori hiri militarra bihurtu zuten eta garai horretako da Gotorlekua. Laurehun urtez izan zen militarra. Inguruko hiri guztiak XIX. mendean hedatu edo zabaldu ziren baina Iruñeari ez zioten baimenik eman, hiri militarra baitzen. Berandu zabaldu zen, beraz, XX. mendean harresiak bota eta gero. Honek hainbat hutsune ekarri

etxeak askotan ez ziren zabalgunearekin ongi lotzen.

EGUNKARIA.— Erdi Aroan hiru hirik osatzen zuten Iruñea. Zeintzuk izan ziren garai hartako Iruñearen ezaugarriak?

TABERNA.— Lehendabiziko hiria Navarria da, Hori izan zen baskoien lehendabiziko herrixka. Erromatarren hiria ere bertan sortu zen eta Erdi Aroan hiria berfundatu zuten Navarria izan zen hiri berriaren jaiolekua. Donejakue Bidearekin frankoak etorri ziren, izaera eta pribilegio ezberdinetako biztanleak eta beren mugak eta harresiak zituen hiri ezberdina sortu zuten. Bigarren hau San Cernin hiria

Iruñeko hirigintzaren oinarriak?

TABERNA.— Gaur egun, hiriaren erdigunea meseta gainean dagoena da, Alde Zaharra eta zabalgunea. Azken urteetan sortutako beste zabalgunek ere meseta gainean daude, Donibane eta Iturrama auzoak. Horiek dira preziatuenak, jendeak gustokoen dituenak. Alde Zaharrak beheakada izan du azken urteetan. Aipatutako gune horietan daude ekipamendu eta zerbitzu guztiak. Hortik kanpo geratzen diren auzuneak desorekatuta daude besteen aldean, batez ere iparraldekoak. Hirigintzak ahalegindu behar du desorekak gutxitzen. Gizartearen bultzada eta hedapena bideratzea du helburu hirigintzak, desoreka murrizteko.

Vicente Taberna

ARKITEKTOA



SOSLAI

Iruñea eta Bera artean

Vicente Taberna Beran jaio zen, Alkaiaga auzoan, nahiz eta arkitektura ikasketak Iruñean burutu zituenetik bertan bizi eta lan egin. Hamazazpi urterekin ailegatu zen Taberna Beratik Nafarroako hiriburura arkitektura ikasteko. Asmoa bete eta karrera amaitu zuen. Amaitu bezain pronto bere kasa hasi zen arkitekto lanean, bai Iruñean bai Iruñetik kanpo. Orain dela hamaika urte, ordea, lehiaketa gainditu eta Iruñeko Udalean hasi zen lanean, Hirigintzako Gerentzia sailan. Egun, sail honetako zuzendari teknikoa da Vicente Taberna beratarra. «Sail honetan hirigintza planez arduratzen gara». Iruñean bizi bada ere, hiria utzi eta herrira maiz hurbiltzen da.

NOSKI JATOR

TXIAPAS...AMETSAC... OBELIXTZALCOALT.

© zaldi ER00

